

BULLYNG KONTRAKO PROTOKOLOA
PROTOCOLO DE ACOSO ESCOLAR

ITSASOKO AMA HLHI



BULLING KONTRAKO PROTOKOLOA.

ITSASOKO AMA HLHI

Funtsezkoa da eskola jazarpen kasuak berehala hautematea, eta dagokien tratamendua ezartzea; izan ere, zenbat eta azkarrago hauteman, orduan eta aukera gehiago izango da arazoa arrakastaz konpontzeko.

Horretarako, beharrezkoa da eskola jazarpena zer den argi definitzea, eta zuzendu beharreko unean uneko beste jokabide batzuegandik bereiztea; jokabide horiek ere erantzun eraginkorra eskatzen duten arren, sarritan, tratamendu desberdin bat behar izaten dutelako. Ondoren zehazten dira eskola jazarpenaren definizioa eta ezaugarriak eta, gaian adituak direnekin alderatuta, oinarrizko erreferente teorikoa dira indarkeriazko jokabidea edo jokabide desagoki jakin bat eskola jazarpena den zehazteko.

Definizioa

Ikasle bat eraso da edo biktima bihurtzen da beste ikasle batek edo batzuek gauzatutako ekintza negatiboak pairatzen dituenean, behin eta berriro eta denbora jakin batean zehar (Olweus, 1998).

Eskola jazarpenaren ezaugarriak

Honako ezaugarri hauek dituzte berdinen arteko tratatu txarrek:

- **Botere-desoreka / babesgabetasuna:** Pertsonen arteko harremanetan, indar-desoreka eragiten duen botere fisiko, psikologiko eta sozial desberdina sortzen da. Biktimak ez ditu aurkitzen bere burua defendatzeko estrategiak eta isolamendua, estigmazioa eta autoestimua galera jasaten ditu.
- **Intentzionalitatea:** Kaltea egin-nahi kontzientean adierazten da, eta horrek geroko erasoaren jomuga izateko irudikapena sorrarazten du biktimarengan.
- **Pertsonalizazioa.** Ikasle bakar bat izan ohi da jazarpenaren biktima, eta, era horretan, babesgabetasun egoeran jartzen da
- **Errepikapena.** Denboran zehar errepikatzen den ekintza izan behar da. Ikerketa askok azpimarratzen dute erasoaren errepikapen horrek duen garrantzia jazarpena dagoen edo ez dagoen erabakitzeke, baita, ISEI-IVEIk aldika EAEan¹ burutzen dituenak ere.

Jazarpenaren beste ezaugarri batzuk

Eskola jazarpenaren ezaugarrien gaian sakontzeko, horri buruzko azterlan eta ikerlanetara jo behar dugu. Azterlan horietatik ondorioztatzen diren deskribapenetan aurki ditzakegu horiek deskribatzeko gakoak, lau esparrutan banatuta.

Esparru bakoitzean, alderdi garrantzitsuenak azpimarratzen dira.

- ☑ Mota desberdinetako jazarpenen maiztasunak.

Ahozko jazarpena, ohikoena eta larritasun txikienekoa izan ohi da.

- ☑ Jazarpena gauzatzen den lekua/ak.

Ikasgelan eta jolastokian gauzatu ohi da jazarpena. Ikasleek irakasleak aurrean ez daudenean gauzatu ohi dute.

- ☑ Eskola jazarpenean inplikaturik dauden pertsonen ezaugarriak.

Mutilek gehiago parte hartzen dute.

Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino gehiagotan sortzen da. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, lehenengo urteetan gertatzen da gehiago.

Funtsean, ikasgelako ikasleak dira jazarle.

- ☑ Erasotzaileen eta erasoak izan direnen jokabideak.

Gida honen IV. eranskinak jasotzen ditu aipatutako lau esparru horiek zehazteko elementuak.

Eskola jazarpen motak

Eskola jazarpenak agerbide desberdinak har ditzake:

- **Bazterketa eta marjinazio soziala**

- Norbaiti ez ikusia egin (pasiboa).

- Ez uztea parte hartzen (aktiboa).

- Sexuagatik, arrazagatik, minusbalotasunagatik eta abarregatik diskriminatzea.

- **Ahozko erasoak**

-

•Ziberjazena

- Norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko, telefono mugikorraren, e-mailaren, sare sozialen, txataren eta abarren bidez mezuak bidaltzea
- Kideei helarazteko edo Interneten esekitzeko, egoera iraingarrietan edo intimitatea urratzen dutenetan (adibidez: sexing) grabazioak egitea mugikorrarekin

Biktimaren ezaugarrien arabera, jazarpenaren agerbide espezifikoak egon daitezke: arrazista, homofoboa, sexista, ahalmen-urritasuna duen ikasle bati zuzendutakoa, etab.

Eskola jazarpenaren ondorioak

- **Biktimarentzat:** Ondorengo hauetan bihur daiteke, eskola-porrota, trauma psikologikoa, arrisku fisikoa, asebetetze-eza, herstura, zoriontasun-eza, nortasun-arazoak eta norbanakoaren garapen orekaturako arriskua. Jazarpen sexuala eta sexista bada, biktimaren rola barneratzea ekar lezake.
- **Erasotzailearentzat:** Etorkizuneko delitu-jokabide baten aurrekari izan daiteke, boterea erasoaren bidez lortzen dela pentsaraz dakioke, hierarkia-mendekotasun ereduan oinarritutako harremanak barneratzea eragin dezake, baita helduaroan zehar ere, eta indarkeriazko gertakariak sozialki onartuta eta sarituta daudela ere pentsaraz dezake.

Jazarpen sexistari dagokionez, ikerketa batzuek adierazi dute erasotzaile-rola hartu izateak helduaroan indarkeria matxista eta tratu txarrak gauzatzea ekar dezakeela.

- **Kide ikusleentzat:** Bidegabekeriarekiko eta berdintasun-ezarekiko jarrera pasiboa eta adeitsua sor dezake, eta norbanakoen balioa eta harreman positiboak modu desegokian balioestea eragin.

Esku-hartzearen faseen azalpena

1. URRATSA.- Eskola jazarpena izan daitezkeen jokabideak behatzea. Balizko eskola jazarpen egoeraren jakinarazpena.

Irakasleek eskola jazarpen esparrukoa izan daitezkeen jokabide bat ikusten dutenerako, askotan, egoera aspaldi hasita egon ohi da. Oro har, ikus ditzakegun kanpoko seinaleak (irainak, erasoak ...) icebergaren punta besterik ez dira. Pertsona erasotzaileek ongi dakite non eta noiz eraso behar dituzten biktimak eta, horien isiltasuna segurutzat hartuz, jazarpenarekin jarraitzen dute. Horregatik, mota horretako adierazpenetan arreta jartzeaz gain, ikasleen jarrera aldaketekin ere erne egon beharra dago (umore-aldaketak, tristura, somatizazioa, bakardadea, uzkurtasuna, hezkuntza-errendimendua murriztea, ohiz kanpoko eskola-absentismoa), mota horretako jokabideak pairatzen egon daitezkeenaren seinale izan ahal baitira. Izan ere, jokabide-aldaketa hori izan daiteke jazarpena hautemateko aztarnarik hoberena.

2. URRATSA.- Zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinaraztea. Hasierako bilera. Protokoloa hasiko den ala ez erabakitzea.

Hurrengo urratsa da behaketak egin dituen edo informazioa jaso duen irakasleak horren berri ematea zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari.

Beste batzuetan, zuzendaritza-taldeak berak jasotzen du jazarpen esparruko balizko egoera baten berri beste iturri batzuetatik, barneko iturriak -ikastetxeko ikasleak, familiak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak- zein kanpokoak
-Fiskaltza, epaitegiak, polizia, Ikuskaritza, etab.-

Zuzendaritza taldeari familiak berak egiten dionean seme-alabarekiko jazarpen balizko kasuaren jakinarazpena, batzar horren akta jasoko da, eta bertan gertakizunen familiak egindako deskribapena islatuko da. Halaber, akta horrek jasoko ditu ustezko biktimaren segurtasuna bermatzeko zuzendaritzak hartuko dituen behin behineko neurriak ere. Familiak eta zuzendaritzak sinatu ondoren, akta hori kopia bat emango zaio familiari. Aktaren eredia 0. ERANSKINean eskura daiteke.

Behin zuzendariari eta zuzendaritza-taldeari jakinarazitakoan, zuzendariak lehenengo bilera batera deituko ditu tutorea edo tutoreak, aholkularia edo

orientatzailea, eta, beharrezkoa bada, baita inplikaturako ikasleen beste irakasle batzuk ere.

Bileran, aztertuko da eta balioetsiko da jazarpena badagoen edo ez dagoen zehaztea ahalbideratuko duen informazioa biltzeko esku-hartzea. Halaber, Protokoloa hastea edo ez hastea erabakiko da, eta baita, 201/2008 Dekretuari jarraiki, jokabideak zuzentzeko prozedura hasteko erabakia hartuko da ere.

Dagokion aktan jasoko da idatziz bilera bertaratutakoak, eztabaidatutako gertakariak eta hartutako erabakiak; eta informazioaren Konfidentzialtasuna bermatuko da *I. eranskinak* jasotzen du aktaren ereduak.

Lehenengo bilera horren berri emango dio zuzendariak Hezkuntzako

Ikuskaritzari, bilera egiten den egun berean.

Gehienez ere bost eskola-egun igaroko dira gertakariak jakinarazten direnetik bilera egiten den egunera arte

3. URRATSA.- A TXOSTENA. Informazioa biltzea eta aztertzea. Premiazko neurriak hartzea. Familiei lehen jakinarazpena.

Behin zuzendaritza-taldeak balizko jazarpen egoera ezagutzen duenean, gertakarien inguruko datuak eta frogak biltzen hasiko da. Horiek aztertu ondoren, eskola jazarpenaren ezaugarriari jarraiki, ebatzi ahal izango du jazarpena badagoen ala ez.

Zuzendariak, edo kasuaren jarraipena egiteaz arduratuko diren ikastetxeko pertsonak, jarraian azaltzen diren iturrietatik lortuko dute beharrezko informazioa, eta idatziz jasoko dituzte bildutako datuak. Informazioa modu zuhurrean bilduko da, eta ez da erabiliko ikasleentzat -horien adinagatik, heldutasunagatik edo gogo-aldarteagatik- kaltegarria izan zitekeen eta/edo kasua konpontzea oztopa zezakeen metodorik. Betiere, kasuaren inguruko informazio ematen duten ikasleak eta horien anonimatua babestuko dira.

1. Ustez erasoia izan den ikaslea.
2. Ustez erasotzaile izan diren ikasleak.
4. Gelako tutorea eta irakasleak.
5. Tartean diren erasoaren eta/edo erasotzailearen ikaskideak.

Informazioa bildutakoan, zuzendariak bigarren bilera baterako deialdia egingo dio irakaskuntza-taldeari, egoki irizten badu. Bilera horretan zehaztuko da jazarpena badagoen ala ez. Zuzendariak *A TXOSTENEAN* jasoko ditu bilera horretako ondorioak. Beharrezkoa bada, ***Behin-behineko premiazko neurriak*** hartuko dira ustez erasoia izan den pertsona babesteko eta/edo erasoak saihesteko

Ustez erasoia izan den ikaslearen berehalako segurtasuna bermatzeko eta beste eraso batzuk eragozteko neurriak

- Ustez erasoia izan den ikaslea bereziki zaintzea.
- Familiei laguntza eskatzea haien seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Banakako tutoretzak pertsona inplikatuekin.
- Ikastetxeko heldu bat izendatzea, biktimak harengana jo dezan behar duen bakoitzean.
- Aurrez osatutako kide-taldeak biktimari laguntzeko, arrisku handieneko uneetan batez ere (sartzean, irtetean, pasabideetan...).
- Irakasleen ordutegiak berrantolatzea dagokion ikasleari arreta espezifikoak emateko.
- Beharrezko irizten bada, taldez aldatzea denbora batez.
- Bere burua babesteko jarraibideak ematea biktimari.
- Hala badagokio, etxez etxeko laguntza eskatzea.

Jokabide erasotzaileak eragin dituzten ustezko ikasleei zuzendutako neurriak

- Berariazko zaintza.
- Tutorearen edo ikasketaburuaren bakarkako zentzarazpena.
- Ikastetxean onartzen ez diren jokabideen azalpen argia, onartzen denaren mugak adieraziz eta arazoaren larritasuna ohartaraziz.
- Familiei laguntza eskatzea haien seme-alabak zaintzeko eta kontrolatzeko.
- Beharrezko irizten bada, taldez aldatzeko kautelazko erabakia har daiteke.
- Beste batzuk.

Fase honen amaieran *A TXOSTENA* egin behar da. Zuzendariak edo horrek izendatutako pertsonak egingo du txostena.

II. eranskinak jasotzen du *A TXOSTENA* egiteko eredia.

Familiei lehen jakinarazpena

Komeni da familia bakoitzarekin bere aldetik lan egitea. Bakarrik prozesuaren amaieran, edo arrazoi sendoak direla medio, egingo da lan familia bat baino gehiagorekin batera.

bilera guztietan akta jasotzea gomendatzen da

Familiei beren seme-alabari buruzko informazioa ematean, inoiz ere ez zaie beste ikasle bati buruzko informaziorik emango.

Orain arte esandakoa kontuan hartuta, tutoreak edo zuzendariak izendatutako pertsonak honako hauek egingo ditu:

• *Biktima izan den ikaslearekin eta haren familiarekin hitzordua jartzea, eta banakako bilera egitea* honako helburu hauekin:

- Informazioa bildu eta arazoaren irismena ezagutu. Gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ote dauden zehaztu eta, hala badagokio, horren inguruan hartu dituzten neur• Ustez *jokabide erasotzailea eragin duen ikasleria eta horien familiarekin hitzorduak jartzea, bai eta gainerako inplikatuekin ere, eta banakako bilerak egin*

- Salatutako gertakariei buruzko informazioa ezagutzera eman eta bildu, eta gurasoak edo legezko ordezkariak jakinaren gainean ote dauden zehaztu, eta, hala badagokio, horren inguruan hartu dituzten neurriak.

- Hartu diren edo hartuko diren premiazko neurrien berri eman; riak.

4. URRATSA.- "A TXOSTENA" igortzea Hezkuntzako Ikuskaritzari

Datuak kontuan hartuta, ikastetxeak ebatziko du antzemandako gertakaria eskola jazarpen esparruko egoera bat den ala ez, *Gida* honetan azaldutako definizioari jarraiki.

Behin *A TXOSTENA* betetakoan, zuzendariak Hezkuntzako Ikuskaritzari igorriko dio, eskola jazarpena izanda edo ez izanda ere.

A TXOSTENA Hezkuntzako Ikuskaritzari igorriko zaio, gertakarien berri izan zuen unetik hasi eta, 15 eskola-eguneko epearen barruan.

5. URRATSA.- EZ dago eskola jazarpenaren ebidentziarik: hezkuntza-tratamendua, egoeraren arabera

Ikastetxeak erabakiko badu jazarpenik ez dela egon, eta gertakariei eta inplikaturako ikasleei eman beharreko hezkuntza-tratamendua aztertuko du.

Agerian jarritako jokabideak eskola jazarpenaren esparrukoak ez badira ere, zuzendariak balioetsiko du jokabide horiek bizikidetzarako desegokiak edo aurkakoak diren, edo kalte larria eragiten duten; eta dagozkion erabakiak hartuko ditu, betiere, 201/2008 Dekretuak elkarbizitza positiboa sustatzeko nabarmentzen dituen oinarrietatik abiatuta.

6. eta 7. URRATSAK- BADAUDE eskola jazarpenaren ebidentziak: berariazko prozedura eta *B TXOSTENA* egitea.

Jasotako informazioa aztertu ondoren, eskola jazarpena badagoela pentsatzeko nahikoa ebidentzia aurkitu direla ondorioztatzen bada, kasu horietarako, jarraian azaltzen den tratamendu espezifikoa abiaraziko da.

Gida honekin batera aurkezten den *B TXOSTENA* beteko du ikastetxeak. Hezkuntzako Ikuskaritzak hala eskatzen duenean ere beteko du txosten hori.

ESKU-HARTZEAREN FASEAK AZALTZEN DITUEN ESKEMA

(ITSASOKO AMA HLHI)

1.- JAZARPENA IZAN DAITEZKEEN JOKABIDEAK BEHATZEA (Ikasleen jarrera aldaketak, hezkuntza errendimendua, absentismoa...)




2.- ZUZENDARITZARI JAKINARAZTEA. PREMIAZKO NEURRIAK HARTZEA.

PROKOLUA HASIKO DEN ALA EZ ERABAKITZEA ETA/EDO

. PROZEDURAREN IREKIERA ERABAKITZEA.

0 ERANSKINA eta I ERANSKINA



3.- INFORMAZIOA BILTZEA ETA AZTERTZEA.

A TXOSTENA (II eranskina) BETETZEA.

FAMILIEI JAKINARAZTEA

Ikasleen eskubideei eta

Betebeharrei buruzko

DEKRETUA



4. KASUEN JARRAIPENA (BEHAKETA-ELKARRIZKETAK...)

5.- **A TXOSTENA**

HEZKUNTZAKO IKUSKARITZARI IGORTZEA

5.- **EZ**, EZ DAGO JAZARPENAREN
EBIDENTZIARIK



HEZKUNTZA-TRATAMENDUA
EGOERAREN ARABERA

6.- **BAI**, BADAUDE
JAZARPENAREN
EBIDENTZIAK



7.- **JARDUERA PLANA**

B TXOSTENA EGITEA

8.- **B TXOSTENA**

HEZKUNTZA

IKUSKARITZARI IGORTZEA

